

## GOBERNU BATZARRA

2014. 02. 14

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren hamalauan, goizeko 10:00etan
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Lore Agirre Zipitria</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Asier de los Rios Soraluze</b>	2.-“Bikarte” Errusiar umeen harrerako elkarteak egin duen dirulaguntzaren eskaera.
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	3.- Presoen familiei dirulaguntzak ematea
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	4.-A.R.L.ren eskaera: Amets tabernari jarritako multaren ordainketa.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	5.- 43/2013 eta 1/14 faktura zerrendak.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko otsailaren 7an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.-“Bikarte” Errusiar umeen harrerako elkarteak egin duen dirulaguntzaren eskaera.

Bikarte elkarteak dirulaguntza eskatu du 2013. urteko “neguko” egonaldiren kanpaina aurrera eramateko. Belorrusia eta Errusiar Federazioko haurrak, umezurtz-etxetatik edota desegituraturiko familietatik datozenak hartzeko du helburua aipaturiko kanpainak.

Horietako ume, hiru egon dira Tolosako familietan.

Hori dela eta, Gizarte Politikak eta Osasun batzorde buruaren proposamenez, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- “Bikarte” elkarteari 1.155€ko dirulaguntza ematea 3 haur horien sortutako bidaien gastuak ordaintzeko.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta "Bikarte" elkarteko arduradunari.

### **3.- Presoen familiei dirulaguntzak ematea.**

2013ko azaroaren 29an Gobernu Batzarrak onartu zituen Gipuzkoatik kanpo dauden presoak bisitatzen dituztenentzako dirulaguntzen banaketa egiteko irizpideak. Dirulaguntzak proportzionalak izango dira, alegia, Tolosatik presoak dauden kartzelen udalerrietara bitarteko km. kopuruaren arabera.

Aurrekontua: 3.320 €

Kilometroko:  $3.320€ : 2.400 \text{ km.} = 1,3833€$

Aipatutako kontuan izanik eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeak jaulki duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ematea ondoren aipatzen diren dirulaguntzak:

1-TOLOSAtik- FRESNES-era (FRAN-TZIA) <b><u>M<sup>a</sup> C. I. L. andreari:</u></b> -Presoa: L I. I. L . (anaia). -Espetxea: Paris (Fresnes)	782,00 km	X 1,3833	1.081,86 €
2- TOLOSAtik- CACERES-era <b><u>A. G. O. andreari:</u></b> -Presoa: A. O. E. (bikotea)	643,30 km	X 1,3833	889,87 €
3- TOLOSAtik- SALAMANCA-ra <b><u>G. M. O. andreari:</u></b> -Presoa: I. O. U. (bikotea) -Espetxea: Salamanca (Topas).	436,70 km.	X 1,3833	604,07 €
4- TOLOSAtik- ZARAGOZA-ra <b><u>M<sup>a</sup> J. H. Z. andreari:</u></b> -Presoa: P. O. A. (bikotea) -Espetxea: Zaragoza	269,00 km	X 1,3833	372,10 €

5- TOLOSAtik- ZARAGOZA-ra <b><i>L.G.G andreari:</i></b> -Presoa: F.J.G. (senarra) -Espetxea: Zaragoza - Zuera	269,00 km	X 1,3833	372,10 €
<b>GUZTIRA</b>	2.400,00 km		<b>3.320,00 €</b>

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

#### **4.- A.R.L.ren eskaera: Amets tabernari jarritako multaren ordainketa.**

Bi mila eta hamalauko urtarrilaren 20an, A. R. L.ri 300 eurotako multa ezarri zitzaion, 2014/102 Alkatetza Dekretuaren bidez, Amets tabernan ordutegik ez errespetatzeagatik.

A.R.L.-k, urtarrilaren 30ean, isunaren ordainketa 3 epeetan zatikatzea eskatu du. Kopurua 300 euro dira.

Tolosako Ordenantza Orokorreko Zergak eta Udal Zuzenbide Publikoaren Bestelako Sarrerak Kudeatzeko eta Biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 150 eta 400 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea 3 hilabete direla dio.

9.artikuluko 5. atalak dio: ***“Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.”***

Beraz, Kontuhartzaitza departamentuak egin duen proposamenaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** 3 hilabeteetan zatikatzea A. R. L.-ri jarri zitzaion isunaren ordainketa (300 euro) Amets tabernan ordutegia ez betetzeagatik.

**BIGARRENA.-** Zatikatzeko honen ondorioz berandutze interesak kobratzea (espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak).

#### **5.- 43/2013 eta 1/14 faktura zerrendak.**

Kontuhartzaitzak 43/2013 faktura zerrenda aurkeztu du; 43.603,43 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 43/2013 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak 01/2014 faktura zerrenda aurkeztu du; 26.316,11 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- 01/2014 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**